

Gakoak aldatzeko prozesua

Ziurtagiriarekin batera orri bat jaso duzu, gutxienez 2 zenbaki sekretu dituena, PINa eta PUKa. Segurtasunagatik, komeni da gogoratzeko erraza izango den beste zenbaki batekin ordeztzea bi zenbaki horiek. Gako horiek ezin dira berreskuratu. Galtzen edo ahazten badituzu, ezin izango duzu ziurtagiria erabili.

PIN zenbakia

Ziurtagiri digitala erabili behar duzun bakoitzean sartu beharko duzun zenbaki bat da. Banku-txartelek dutenaren antzeko zenbaki sekretua da, eta ez diozu inori jakinarazi behar, ziurtagiria bidegabe erabiltzerik nahi ez baduzu behintzat.

Zenbakia inon idatzi beharrik ez izateko, komeni da zenbakia aldatzea eta errazago gogoratuko duzun beste bat jartzea.

Ez erabili asmatzen erraza den 1111 edo 1234 moduko PIN


Nola aldatu PIN zenbakia

IZENPEren softwarea (www.izenpe.eus/software) instalatu ondoren, Card Manager aukeratik aldatu ahal izango duzu.


1. Ziurtatu ziurtagiria sartuta dagoela eragiketarekin hasi aurretik.
2. Windowseko Hasiera menutik, bilatu IZENPE eta Card Manager aukera.
3. Menuan hautatu PINa aldatzeko aukera.
4. Sartu gaur egungo PINa, gero berria eta errepikatu berria. PIN zenbakia 8 digitukoa izatea gomendatzen da.

PIN

3



4



PUK zenbakia

Okerreko PIN zenbaki bat hiru bider baino gehiagotan jarraian idatziz gero, ziurtagiria desblokeatzeko aukera ematen duen 8 digituko zenbaki bat da.

Nola aldatu PUK zenbakia

PUK zenbakia ere Card Manager aukera erabilita alda daiteke.

1. Ziurtatu ziurtagiria sartuta dagoela.
2. Windowseko Hasiera menuetik, bilatu IZENPE eta Card Manager aukera.
3. Menuan hautatu PUKa aldatzeko aukera.
4. Sartu gaur egungo PUKa, gero berria eta errepikatu berria. PUK zenbakia 8 digitukoa izatea gomendatzen da.

Ez erabili asmatzen erraza den 11111111 edo 12345678 moduko PUK zenbakirik.

PUK

4

